

a u z o z a u z o

herrera-bidebieta


Mozkor Frenteki-deek antolatuta paleta goma finala jokatu zen aurreko asteburuan.

Lehenengo mailan Tocinete-Mutriku bikotea Kakati-Kanitoren aurka aritu zen.

Tocinete eta Mutriku faborito izan arren Kanito eta Kakatik irabazi zuten txapelketa, azken sakan faboritoez egindako kale-agatik. Beraz, partiduaren emaitza 29-30 Kakati eta Kanitoren alde izan zen.

Bigarren mailako partidua ez zuen gutxiago eskaini. Txuti-Popi 30, Prost-Txokona 24 izan zen emaitza eta 22ra iritsi arte oso bateratsu ibili ziren bi bikoteak.

Bi partiduez gain, parrokiko Juan Jose apaizak anjelusa errezatu zuen eta eguneko anekdotaren protagonista izan zen *«hobe da frontoian egotea elizan pentsatuz, elizan frontoian pentsatuz egotea baino»* esan zuenean.



Roxali

Bidebietako Institutuan gogor aritu dira lanean euskal taldeetako ikasle eta irakasleak. Astea oso arrakastatsua izan da.

Bidebietako Euskal Astea

J oan den aste osoan zehar, Bidebietako Institutuan euskal astea ospatu dute ikasle eta irakasleek.

Lau egunetako egitaraua prestatzen bederatzi hilabete egin dituzte baina pena merezi izan duela dirudi.

Aipatzeko ekintzen artean, euskal ikasleei egin zitzaizkien Bagera, Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen aurkezpena litzateke. Eus-

kararen inguruko hitzaldi eta hausnarketak ere izan ziren erdal ikasleentzat.

Ekintzarik garrantzitsuenetakoa ikasleek kale-ratutako «Ttakun» izeneko aldizkaria izan da. Aldizkaria bi preziotan jarri zuten salgai 100 pezeta ikasleentzat eta 200 pezeta irakasleentzat.

Aldizkariak 36 orrialde ditu eta bertan aurkitu daitezkeen edukiak, ikasleengan gaur egun grina piz-

ten duten horietakoak dira. Adibide gisa ikasleek, inkesta bidez, institutuan euskara eta euskaldun maila nola dagoen aztertu nahi izan dute eta estatistikoki adierazi dute hori aldizkarian.

Elkarri erakundeko ezaugarri eta gorabeherak ere aztertu dituzte. Gure aldetik guzti guztioi esker ematea besterik ez!

LARRAITZ GARMENDIA | Tfnoa: 391267

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

BIKOTE
KAFETEGIA
Zedro plaza 2
☎ 39 99 52

intxaurrondo


Bizikletaz Herri Urrats-era

III. Marrazki eta idazlan lehiaketa.

Intxaurrondoko Internazional Kirol Elkarteak III. marrazki eta idazlan lehiaketa antolatu du. Gaia, honako galdera honen inguruan kokatu dute: «*Kirola, zer egingo zenuke Intxaurrondon?*» Galdera honekin gazteen aldetik proposamenak jaso nahi dituzte. Folio batean, marrazkia edo testua egin behar dira eta lanak entregatzeko epea maiatzaren 13an bukatzen da. Mugi zaitzetzte!

Bizi nahi dugu,

pakearen aldeko XI. jardunaldiak egingo dira maiatzaren 9an hasi eta 15era bitartean, Boskozaleak elkarteak eta Larrotxene Kultur Etxeak antolatuta. Hitzaldi eta bideo emanaldiak Maria Auxiliadora Ikastetxearen Areto Nagusian izango dira.



Roxall

Orain arte kiroletatik nahiko urrun ibili denez, Zulo Zahar elkarteak zikloturismo talde bat sortuaz harritu egin gaitu. Momentu honetan 20 partaide inguru daude, baina urtea aurrera joan ahala, kopuru hori igotzea espero

dute. Gainera, taldea auzokide guztientzat irekia dagoela kontutan harturik, nahi hori erraz bete ahal izango dute.

Igandero irteerak antolatzeke asmoa dute toki desberdinak ezagutu asmoz.

Horrekin, auzotarren artean giro jatorra lortzea eta kirol hau bultzatzea espero da.

Lehen irteera

Lehen martxa, Senpererako bidaia da, Herri Urrats festa bertan ospatzen dela eta. Maiatzaren 8an, goizeko 8.30tan aterako dira txirrindulariak Zubiaurre zubitik.


Bizikletaz ibiltzea hain atsegin ez dutenentzat ere, autobusa antolatu du elkarteak. Prezioa 1.000 pezetatakoa da eta txirrindularien ordu berean aterako da zubitik.

Bazkaria eramateko asmoa ere badago, 600 pezeta helduentzat eta 300 pezeta haurrentzat. Ekintza hauetan parte hartzeko, Zulo-Zahar tabernan apunta zaitezketek.

Azkenik, maiatzaren 7an, asanblea orokorra antolatu du bazkideentzat. Ordua, 4.30etan lehen deialdia eta 5etan bigarrena.

Zulo-Zahar
Elkarteak
eratu duen
zikloturismo
taldea
auzoan
sortzen den
lehen da.
Igandero
martxa
desberdinak
egiteko
asmoa dute,
bertan
edozeinek
parte hartu

NAGORE IRASTORZA (Tfnoa.:28 57 49)



BIKAIN AKADEMIA

• Euskera • Ingelesa • O.H.O. •
B.B.B. • U.B.I. • Matematika • ...

Baso-Txiki, 36-38 Behea ☎ 28 87 34 INTXAURRONDO



**Pisina
Gimnasioa**

Igerileku

Girotua:

Igeriketa ikastaroak,
haurtxoentzat,
haurrentzat, helduentat

ELVRA

isaketa -garbiketa

• Jaso eta itzuli 48
ordutan, doan.

Intxaurrondo, 62.

☎ 28 68 16